

# Moodle-ren rol eta baimen-sistemaren aplikazioak hezkuntza-komunitate batean

Abel Camacho eta Pedro Lonbide

## Laburpena

Moodle-k oso urte gutxitan ikaragarritzko garapena izan du, gainerako hezkuntza-softwarearen aldean azkarren eta bizkorrenetakoa. Komunikazio honetan Moodle-ren bilakaera aztertu nahi dugu ideia bat defenditze aldera: 1.7 bertsiotik aurrera indarrean jarri zen rol eta baimen-sistemari esker, Moodle era guztietako hezkuntza-komunitateak kudeatzeko tresna teknologikoa bihurtu da.

Izan ere, Moodle ikasgela birtualak sortzeko aplikazioa izatetik hezkuntza-komunitate birtualak bultzatu eta kudeatzeko aplikazioa izatera pasatu da. 1.6 bertsiora arte ikastaroa zen unitate logikoa eta 1.7tik aurrera testuinguruak ditugu; lehen rol estandarrak zeuden bitartean, gure beharren arabera rolak sor ditzakegu orain komeni zaizkigun testuinguru eta zereginetarako.

Komunikazio honetan ustezko komunitate baten deskribapena egin nahi dugu. Bertan, hainbat rolen ezaugarriak eta sortzeko modua azalduko dugu: gurasorola (bere seme-alaben kalifikazio-txostenera sarbidea izango duena), kanpoko aztertzailea (ikasleei ebaluazio-probaren bat pasako diena), liburuzaina (era askotako baliabideak komunitatearen esku utziko dituena), ikasle ohia (komunitatearekin harremanetan jarraituko duena), bulegaria (ikasleen kudeaketa akademikoaz arduratuko dena), ikasleen aholkularia (ikasleak ikas-prozesuan zehar gidatuko dituena)...



Mondragon Unibertsitatea

2008ko maiatza

## SARRERA

---

Badira urte batzuk gure artean Moodle zabaltzen hasi zela. Artean era guztietako plataforma telematikoak zeuden merkatuan, asko eta asko ordainpekoak eta bakarren batzuk kode irekikoak. Dakigunez, Moodle poliki-poliki joan zen nagusitzen eta gaur egun askoren iritzia da Moodle e-Learningerako estandarra bihurtu dela.

Arrakasta horren arrazoiak asko baldin badira ere, hemen Moodle-ren etengabeko garapena eta hobekuntza azpimarratu nahi ditugu. Izan ere, oso denbora laburrean lortu duen garapen-maila nekez aurkituko dugu hezkuntza-mundurako diseinatutako softwareetan.

Komunikazio honetan Moodle-ren garapen horren ondorio bat aztertu nahi dugu: Moodle on-line ikastaroak sortzeko aplikazioa izatetik era guztietako hezkuntza-komunitateak kudeatzeko tresna teknologikoa izatera pasatu da, 1.7 bertsiotik aurrera indarrean jarri zen rol eta baimen-sistemari esker. Horretarako, ustezko hezkuntza-komunitate baten deskribapena egingo dugu.

## MOODLE 1.7 BERTSIORA ARTE

---

2004. urtean Jaume I unibertsitateko CENT-ek (Centre d'Educació i Noves Tecnologies) ikaskuntza eta irakaskuntzarako ingurune birtual bat aukeratu ahal izateko lana burutu zuen eta horren emaitzak txosten batera ekarri zituen. Bertan, besteak beste, honako ezaugarri hauek aipatu zituen Moodle-ri buruz<sup>1</sup> :

- Moodle on-line ikastaroak sortzeko eta kudeatzeko ingurunea da
- Moodle-ren unitate logikoa ikastaroa da (ikasgaia izan zein gradu-osteko ikastaroa izan). Ikastaroak kategoriaka sailkatzen dira (ikastetxe oso bat zein titulazio jakin bat)

Moodle-k, beraz, garai hartan ikasgela birtualen ohiko ezaugarriak zituen: elkarren arteko integrazio altua zuten tresnak zituen, eta horietarako sarbidea erabiltzaile-profilaren arabera baimen-sistema batek ezartzen zuen. Ikus dezagun modu grafikoagoan:

Tresnak	Erabiltzaileak
<ul style="list-style-type: none"><li>▪ Komunikaziorako tresnak</li><li>▪ Edukiak eta ikas-materialak kudeatzeko tresnak</li><li>▪ Ebaluaziorako tresnak</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>▪ Guneko kudeatzailea</li><li>▪ Ikastaro-sortzailea</li><li>▪ Irakaslea</li><li>▪ Ikaslea</li></ul>

---

Gainerako ikasgela birtualetan bezalaxe, irakasteko eta ikasteko prozesu formalak kudeatzeko funtzionalitateak zituen. Enfasia ikasteko jardueretan eta komunikazioan

<sup>1</sup> Moodle-ren orduko bertsioa 1.2 zen.

ipintzen zuen baina finean instrukzio formalerako plataforma telematikoa zen; bestela esateko, ohiko gela baten translazioa bertualitatera.

## MOODLE 1.7 BERTSIOTIK AURRERA

---

2006ko azaroaren 7an Moodle-ren 1.7 bertsioa askatu zen eta berrikuntza nagusia rol eta baimen-sistema izan zen. Honako hauek dira berrikuntza horren kontzeptu nagusiak (*Moodle Doc-ak Euskaraz* proiektua):

- **Rola** testuinguru jakin batean erabiltzaileak duen estatusaren identifikatzailea da. Irakasle, ikasle edo foro-moderatzaile dira rolen adibide.
- **Gaitasuna** Moodle-ren eginkizun jakin baten deskribapena da. Gaitasunak rolek daude lotuta. Adibidez, *mod/forum:replypost* izeneko foroetako mezuei erantzun ahal izateko gaitasuna da.
- **Baimena** gaitasun bati rol jakin baterako ematen zaion balorea da. Dena delako gaitasunerako aukera daitezkeen baloreak dira, adibidez, baimendu, debekatu edo ukatzea.
- **Testuingurua** Moodle-ren guneetako bakoitza da eta bertan/bertarako ezar dakizkieke rolak erabiltzaileei. Ikastaroa, jarduerak, blokeak, e.a. dira testuinguruaren adibide.

Moodle-k alde zuzenetik definitutako zazpi rol ditu (kudeatzailea, ikastaro-sortzailea, irakaslea, edizio-baimenik gabeko irakaslea, ikaslea, bisitaria eta autentifikatutako erabiltzailea —azken hau Moodle 1.8tik aurrera—).

Rol horietako bakoitza baimen-multzo estandar batek definitzen du eta jakina, Moodleko kudeatzaileak (eta gaitasun horretarako baimena duen erabiltzaileak) rol horiei baimenak kendu edo eman ahal dizkie, rola bera ezabatu edo nahi beste rol berri sor ditzake oso modu erraz eta azkarrean.

Hori horrela, erabiltzaile bakoitzari rol ezberdin bat esleitu ahal zaio testuinguru bakoitzean eta hartara, testuinguru horretarako eta horren azpikoetarako rol horrek dituen baimenak emango zaizkio.

Ikus dezagun testuinguruaren zerrenda hierarkikoki:

- Sistema<sup>2</sup>: goragoko testuingururik ez du.
- Hasiera-orria: goragokoa = sistema
- Ikastaro-kategoria: goragokoa = sistema
- Ikastaroa: goragokoa = kategoria edo sistema
- Modulua: goragokoa = ikastaroa edo sistema
- Blokea: goragokoa = ikastaroa edo sistema

---

<sup>2</sup> Moodle-ren 1.8 bertsiotik aurrera *gunea* izeneko testuinguruari *sistema* esaten zaio.

- Erabiltzailea: goragokoa = sistema

Esan bezala, erabiltzaile jakin batek testuinguru ezberdinetan rol eta, beraz, baimen-multzo ezberdinak izan ditzake. Adibide bat ipintzearen, Santurtziko Udal Euskaltegiaren ikasgela birtualean<sup>3</sup>, besteak beste, bi ikastaro-kategoria ditugu: *euskara-ikastaroak*, bata eta *irakasleen prestakuntza*, bestea. Lehenengoan, hainbat ikastarorekin batera azpikategoria bat dugu, *autoikaskuntza* izenekoa. Bigarrenean dauden ikastaroetako bat *Hezkuntza eta Teknologia* izenekoa da. Horietako testuinguru bakoitzaren arabera ondoko rola izan litzake gure erabiltzaile batek:

Testuingurua	Rola	Baimenak
Sistema	Autentifikatutako erabiltzailea	Ez du sarbiderik.

Hasiera-orria	Autentifikatutako erabiltzailea	Ez du sarbiderik.
---------------	---------------------------------	-------------------

Erabiltzailea	Autentifikatutako erabiltzailea	Blogak ikus eta bertan idatz dezake.
---------------	---------------------------------	--------------------------------------

Testuingurua	Rola	Baimenak
<i>Euskara-ikastaroak</i> kategoria	Edizio-baimenik gabeko irakaslea	Eskola eman dezake baina dagoeneko sortuta dauden ikas-materialak erabiliz.

<i>Autoikaskuntza</i> azpikategorian	Irakaslea	Eskola eman dezake material berriak sortuz eta lehengoak aldatuz.
--------------------------------------	-----------	---

Testuingurua	Rola	Baimenak
<i>Irakasleen prestakuntza</i> kategoria	Ikaslea	Ikastaro bateko jarduera guztietan har dezake parte. Ikastaro bakoitzerako sarbidea izango du segun eta zein matrikulazio-molde hautatu dugun.

<i>Hezkuntza eta Teknologia</i> izeneko ikastaroa	Ikaslea	Ikastaro bateko jarduera guztietan har dezake parte.
---	---------	--

Ikastaro horretako foro batean	Moderatzailea	Mezuei erantzuteaz gain, editatu edo ezaba ditzake.
--------------------------------	---------------	---

Ikastaro horretako zeregin batean	Irakaslea	Ikaskideen lanak ebalua ditzake.
-----------------------------------	-----------	----------------------------------

<sup>3</sup> <http://ikasgela.santurtzieus.com/>

## **EREMUAK ETA AKTOREAK HEZKUNTZA-KOMUNITATE BATEAN**

---

Ez da gure asmoa hemen hezkuntza-komunitatearen definizio oso eta zehatz bat egitea baina azaleko hurbilpen bat eginez, esan dezakegu hezkuntza-ingurune jakin baten inguruan ari diren pertsona-multzoak osatzen duela komunitatea. Pertsona horien arteko lanak eta elkarreraginak mesedetzen dute heziketa-prozesua.

Heziketaren kalitatea eta ikasleen ongizatea lortzea helburu duten jarduerak bultzatzeaz arduratzen da komunitatea eta horretarako heziketa integrala bilatzen du, instrukzio formalaz harantzago. Etengabeko garapenean ari da eta aldaketaren aurrean zabalik.

Hartara, ohiko eskola baten kasuan hiru eremu eta hainbat aktore bereiziko ditugu

- **Kudeaketa:** zuzendaritza, bulegaria, ikuskatzailea...
- **Instrukzio formala:** irakaslea, aholkularia, liburuzaina...
- **Instrukzio ez-formala:** gurasoak, jantokiko monitoreak, eskolaz kanpoko jardueren monitoreak, ikasle ohia...

Aipatu eremuak eta aktoreak Moodle-ren instalazio batera ekar daitezke eta horrela, hezkuntza-komunitate birtuala osatu.

## **HEZKUNTZA-KOMUNITATE BIRTUALA MOODLE-n**

---

Moodle-k berez dakartzan rolez gain, oso modu errazean sor ditzakegu nahi edo behar beste rol<sup>4</sup>. Hemen hainbat rolen ezaugarriak zirriborratuko ditugu aipatu eremuak eta aktoreak kontuan hartuta.

### **KUDEAKETA**

- **Bulegaria**

Edozein hezkuntza-komunitatetan kudeaketa administratiboa lehenasunezko alorra da. Bulegariak ikasleak gunean autentifikatu eta ikastaroetan matrikulatzeko modua izan behar du, ordainketa-sistemaz arduratu, ikasleen kalifikazioak eta asistentzia kontrolatu behar du baina ez du zertan ikastaro barruko hezkuntza-jardueretarako sarbidea izan. Gainera, aipatutako egiteko horietako bakoitzean ikastetxearen araberrako ñabardurak izango ditu.

Horretarako, kudeatzailearen rolean oinarritutako rol berria sortu behar genuke. Gero ikastaro nahiz jarduera-moduluetako hainbat gaitasun debekatu, batez ere sistemaren eta hasiera-orriaren kudeaketarekin lotutakoak.

---

<sup>4</sup> Bidea: *Gunearen kudeaketa > Erabiltzaileak > Baimenak > Rolak definitu > Rola gehitu*

- **Ikuskatzailea**

Kanpotik jardun didaktikoa ikuskatzen duen aktorea dugu hau. Garai batean *notak* ikustera etortzen zen pertsoniaz haratago, gaur egungo ikuskatzaileak prozesuen eta horien emaitzen berri izan behar luke. Ikuskatzaileak ikastaro jakinetan burutzen diren prozesuen nondik-norakoen berri izan behar du, ikasleen emaitzak eskuratu... baina ahal dela ikasleek (eta agian irakasleek) bertan dagoela jakin gabe.

Horretarako, irakaslearen rolean oinarrituko rol berria sor liteke. Ondoren, ikastaroetan parte hartzeko gaitasunak kendu beharko litzaizkioke. Bestalde, jakina *ezkutuko rola* izan beharko luke.

- **Komunikazio-arduraduna**

Komunitateko kideei komunitatean gertatzen diren ekitaldien berri eman behar zaie, eta albisteak, oharrak eta bestelako gertakariak jakinarazi. Horixe da komunitate baten funtsezko elementuetako bat: konpartitzen den informazioa. Informazio hori zabaltzeko aukeratutako moduaren arabera, egutegiaren editore-rola sor dezakegu horretarako edo blogari-rola edo hainbat fororen kudeatzailearena. Hirurek dute eginkizun bera: komunitateari informazioa eskaini eta komunitateak sortutako informazioa guztion eskura ipintzea.

Horretarako, komunikaziorako arduradun-rola sor liteke. Gero, *moodle/calendar:manageentries*<sup>5</sup> bezalako gaitasunari *baimendu* ezarri beharko litzaioke.

- (...)

## INSTRUKZIO FORMALA

- **Irakaslearen aholkularia**

Gaur egun Berritzeguneek egiten duten lana (aholkularitza eta laguntza) Moodle-n bertan ere egin daiteke. Aholkulariak irakaslearen lana gainbegiratzeko aukera izango du eta baita ikasleen erantzuna ere. Ez luke zuzenean ikastaro batean parte hartu beharko baina bai gertatzen den guztia ikusi, ondoren laguntza eskaini ahal izateko. Horretaz gain, irakasleekiko lotura zuzena beharko luke .

Hori egiteko modurik errazena ikuskatzaile-rola aldatzea da eta hainbat eginkizunetarako baimena ematea. Horrez gain, irakaslearekikoak burutzeko *taldea*<sup>6</sup> eta *taldekatzeak*<sup>7</sup> ere erabil litezke.

- **Ikasleen aholkularia**

Ikasleen ikaskuntza-ibilbidearen ardura duen hezitzaileak hainbat informazio behar du ondoren ikasle bakoitzari aholku egokiak eman eta ibilbideak proposatzeko. Ikasleen ekoizpenez gain, prozesuaren nondik-norakoen berri izan behar du, bere

<sup>5</sup> <http://docs.moodle.org/eu/Capabilities/moodle/calendar:manageentries>

<sup>6</sup> <http://docs.moodle.org/eu/Taldeak>

<sup>7</sup>

<http://docs.moodle.org/eu/Taldekatzeak>

lana burutzeko behar beste material ikasleen esku uzteko aukeraz gain, irakasle eta ikasleekiko harreman zuzena izango du.

Honetarako ere, ikuskatzaile-rola aldatzea nahikoa litzateke. Horrekin batera, *Oharrak*<sup>8</sup> izeneko funtzionalitatea ere jar daiteke bere esku, ikasle-rolari Capabilities/moodle/notes:view gaitasuna baimenduz.

- **Liburuzaina**

Liburutegian dauden bitartekoen berri eman beharko du, bat edo besteri buruzko aipamenak egin, ikasle eta irakasleen eskariak eta iradokizunak jaso eta oharrak bidali (erabiltzaile bati zein guztiei), ekitaldiak antolatu... Bitartekoez ari garenean ez gara liburuez bakarrik ari, jakina.

Horretarako aukera bat izan daiteke aktore honi bere lana egiteko metaikastaro bat<sup>9</sup> sortzea eta bertan irakasle-rolaren baimenak ematea.

- **Bisitari gonbidatua**

Gero eta ohikoagoa da ikastetxeetan kanpoko pertsonak ekartzea eginkizun jakin baten inguruko azalpenak ematera-edo. Hitzaldi formatua izan, mintegi formatua izan... bisitari horiek aukera izan behar dute aldez aurretik egingo duten horren inguruko informazioa ikasle eta irakasleei eskaintzeko, aldez aurretik ikasleek izan ditzaketan zalantzak eta kezkak ezagutzeko, gairen inguruko galderei erantzuteko...

Horretarako, nahikoa izan daiteke blogari-rola ematea eta hartara, sistemaren blog-plataforman izango luke tokia<sup>10</sup>.

- (...)

## INSTRUKZIO EZ-FORMALA

- **Gurasoak**

Familiaren partaidetzarik gabeko komunitatea hanka motza izango da. Partaidetza hori ikasketa-mailaren arabera ezberdina izan badaiteke ere, gurasoek beren seme-alaben egoeraren berri izan beharko dute, zer eta nola egiten duten jakin, seme-alaben kalifikazioak eta txostenak ikusi, asistentzia kontrolatu... Bestalde, irakasleekiko harreman zuzena ere izan beharko dute.

Horretarako, Mentees blokea<sup>11</sup> agerian izan behar da sisteman edo *Nire Moodle* aukeran eta moodle/user:viewdetails gaitasuna<sup>12</sup> baimenduta.

---

<sup>8</sup> <http://docs.moodle.org/eu/Oharrak>

<sup>9</sup> <http://docs.moodle.org/eu/Metaikastaroak>

<sup>10</sup> Autentifikatutako erabiltzailea izeneko rolak berez bloga ikusi eta bertan idazteko gaitasunak baimenduta ditu.

<sup>11</sup> [http://docs.moodle.org/eu/Mentees\\_blokea](http://docs.moodle.org/eu/Mentees_blokea)

<sup>12</sup> <http://docs.moodle.org/eu/Capabilities/moodle/user:viewdetails>

- **Ikasle ohiak**

Ikasle ohiak dira hezkuntza-komunitatearen osagarri garrantzitsu bat. Hauen kasuan helburua ikastea ez ezik, komunitatea osatzea ere bada, sare sozialak eratuz eta ikaskide nahiz irakasle izan dituztenekiko kontaktua mantenduz.

Horretarako informaziorako tresnak baino ez ditugu behar, orokorrean, eta nahikoa litzateke egutegia, foroa, txata, bloga... eta horietarako baimena izatea. Posible izan liteke, beraz, ikasle-rolarekin aritzea.

- (...)

## **ONDORIO BIDETIK**

---

Amaitzeko, hainbat ondorio azaldu nahi ditugu. Lehenik eta behin, azpimarratu nahi dugu 1.7 bertsiotik aurrera martxan jarri zen rol eta baimen-sistemak erabateko aldaketa ekarri zuela: ordutik aurrera Moodle-ren ardatza ez da *ikastaroa*, baizik eta *testuingurua*.

Testuinguru bakoitzerako nahi beste rol sortu ahal ditugu komeni zaigun baimen-multzoa emanaz eta rolen ahalmenak gure beharrei egokituz. Malgutasun horrek Moodle era guztietako hezkuntza-testuinguru eta jarduera akademikoak kudeatzeko tresna bihurtu du, ikasgela birtualen mugak gaindituta.

Rol berri bat sortzeak ez du zailtasun tekniko handirik baina funtsezkoa da alde aurretik hainbat eta hainbat erabaki hartu izana, tokian tokiko berezitasunen arabera: zein rol eta zertarako, nolako beharrei erantzutekoa...

e-Learningaren etorkizunerako oztopo ziren hainbat egoera gainditu egiten dira aldaketa honekin. Askoren ustez, gainditzeko zailak diren mugak zituen e-Learningak: ikasle-irakasle harremana baino ezin omen zen garatu, besteengandiko eta besteekiko ikaskuntza ezin omen zen bultzatu, ikaskuntza-testuingurua ez omen zen kontuan hartzen... Aurrera pausu nabaria suposatu du Moodle 1.7-k horiek guztiak gainditzeko; izan ere, Moodle-k oinarri-oinarrian duen ikaskuntza-irakaskuntzaren ikuspegi sozio-konstruktibistan sakonduta alderdi guzti horiek garatu ditu.

Jakina, ondorengo bertsioen hobekuntzek eta garapenak bide berean jarraituko dutenez Moodle-ren bitartez garatutako ikaskuntza-programek eraginkortasun eta malgutasun handiagoa eta kalitate hobea izango dute.

## **BIBLIOGRAFIA**

---

CENT (2004): *Selección de un entorno virtual de enseñanza-aprendizaje de código abierto para la Universitat Jaume I*. Centre d'Educació i Noves Tecnologies de la Universitat Jaume I ([http://cent.uji.es/doc/eveauji\\_es.pdf](http://cent.uji.es/doc/eveauji_es.pdf))

Moodle Komunitatea: *Moodle Doc-ak Euskaraz*. Moodle-ren dokumentazio ofiziala. <http://docs.moodle.org/eu/>